

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hiru plaza berrik Nafarroako Gobernuaren LGTBI Unitatea indartuko dute

Nafarroako Berdintasunerako Institututik kolektiboari zuzendutako zeharkako arreta politikak bultzatuko dituzte

Asteazkena, 2019.eko otsailak 13

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutuko LGTBI Unitatea indartuko duten egiturazko hiru plaza berri sortzeko erabakia onartu du gaurko bilkuran. Gradu Ertaineko bi Teknikaririk (Berdintasuna) eta adar juridikoko APT batek osatuta, kolektiboari zuzendutako zeharkako arreta politikak bultzatzeko lan egingo du.

Honela, Nafarroako Gobernuak giza-baliabideez hornitu nahi izan du LGTB kolektiboaren egiazko eskubide berdintasuna bultzatu eta sustatzea xede duten politiken garapena. Unitateak arreta neurri espezifikoaren garapena ere bultzatuko du, baita esparru honen sorrera aurreikusia zuen LGTBI+ pertsonen gizarte berdintasunari buruzko 8/2017 Foru Legearen garapena ere.

Olo kontseilariak gogoratu duenez, 2016az geroztik, “NABIren egituraren barnean, LGTBI Berdintasunerako negoziatu bat zegoen, pertsona guztien egiazko berdintasuna bultzatzearen aldeko eskariari erantzuteko”. “Alabaina, egitura hori ez zen nahikoa –esan du–, eta horren aurrean, orain, Unitatea Legean jasotakoa betezen lagunduko dion egitura batez hornitzea erabaki da”.

Halaber, Oloko argi utzi nahi izan du egitura berri honi gehitu behar zaiola “LGTBI+ pertsonen arreta emateko Kattalingune zerbitzu publikoa, 2016az geroztik sexu zein genero orientazioari loturiko diskriminazioaren aurkako borrokan eta lanean erreferentziazko entitate bihurtu den Kattalingorri kolektiboak kudeatzen duena”.

Nafarroako Kontseilua eta LGTBI Ekintza Plana

Horrekin batera, kontseilariak jakinarazi du, asteazken honetan hasi eta hilabeteko epean, Gobernu Irekiaren Atarian izanen dela LGTBI Foru Legea garatuko duen Ekintza Plana, ekarpenak egin ahal izateko.

Gainera, luze gabe, Nafarroako LGTBI Kontseilu berria eratuko duen dekretuaren zirriborroa esekiko da. Exekutiboak martxoan onartu nahi ditu bi agiri horiek, eta horrela, kontseilariaren esanetan, “aurrerapauso irmo eta sendoak ematen jarraitu ahal izango dugu, Gobernuaren jardunbidean LGTBI politikak zeharkakoak izan daitezen”.